

## **Avilako Teresa santua (urriaren 14a) (ikus beherako Orduen Liturgiarako 2. irakurgaia)**

Santa Teresa Avilan jaio zen 1515ean. Haurtzaroan, santuen ibilerei buruzko liburuak irakurri eta, martiri izan nahiz, ihes egin zuen etxetik musulmanen lurraldera. Etxekoek itzularazi eta zaldunen ibilerei buruzko liburuek (nobelek) liluratu zuten gaztaroan. Baina San Jeronimoren gutunak irakurri zituenean, erlijiosa egitea erabaki zuen. Avilako «La Encarnación» monasterioan sartu zen 1535ean. Otoitz-bizitza sakoneko aldiak izan zituen, eta espiritu-bizitza arinekoak ere bai. Gaixoaldi larria igaro behar izan zuen –hila zegoelakoan, lur eman zioten ia–. San Joseri otoitz eginez sendatu zen.

San Agustinen «Aitorpenak» liburua irakurri eta Jesus gurutziltzatuak dei berezia egiten ziola sumaturik, 1557an «konbertitu» zen eta otoitz-bizitza sakonean sartu. Bere bizitzako bigarren aldi honetan asko lagundu zioten Borjako San Frantziskok eta Alcantarako San Pedrok.

Karmeldarren ordena hasierako espiritu eta zorroztasunera itzularazi nahirik, komentu asko fundatu zuen hiri askotan. Zailtasun handiak izan zituen eraberritze hura aurrera eramateko, eta fundatutako komentuak bisitatuz ibili behar izan zuen ia gelditu gabe. Nuntzioaren esanetan, Teresa «fémina inquieta, andariega, desobediente» (emakume urduria, ibiltaria, bihurria) zen. Avilako San Joanek defenditu zuen Teresa Erroman. Gurutzeko San Joanek indar handia eman zion –bera ere eraberritzaile zelarik–.

Honako obra hauetan aurki daiteke Santa Teresaren mistika-bidea: «Bizitza» (aita Onaindiak euskaraz), «On-Bidea» (aita Onaindiak eta Akesolok euskaraz), «Egoitzak edo Barne-Gaztelua» (aita Onaindiak euskaraz), Idazlan Guztiak (Luis Baraiazarrak euskaraturik). 1582an hil zen Alba de Tormes herrian (Salamancan), esanez: «Iritsi da Zu, ene Maitea, ene Jauna, ikusteko garaia». Paulo VI.a aita santuak eliz irakasle deklaratu zuen.

### **(Eguneko 2. irakurgaia)**

6.-Hain adiskide ona bertan dela, lehenen sufritzen jarri zen kapitain hain onarekin, guztia sufri daiteke: laguntza da eta adorea ematen du; ez du sekula huts egiten; benetako adiskidea. Eta argi ikusten dut, eta gero ere ikusi dut, Jainkoari poz emateko eta mesede handiak egin diezazkigun, Gizatasun guztiz santuaren bidez izatea nahi duela haren Maiestateak esan baitzuen harengan duela atsegin. Hori behin eta berriro ikusi dut esperentziaz. Jaunak esan dit. Argi ikusi dut ate honetatik sartu har dugula, Maiestate gorenak sekretu handiak erakustea nahi badugu.

7.-Hortaz, jauna, ez dezala berorrek nahi izan beste biderik, kontenplazioaren goren-gorenean badago ere; hemendik ziur doa. Gure Jaun honen bidez datozkigu on guztiak. Berak irakatsiko dio. Haren bizitzari begira, eredurik ona da.

Zer besterik nahi dugu ondoan dugun adiskide hain onagandik, geure neke eta probetan, mundukoek egiten dutenez, bertan behera utziko ez

gaituen harengandik? Zorionekoa bene-benetan maite izan eta beti ondoan dakarrena. Gogora dezagun: san Paulo aintzatsua; badirudi ez zuela unerik Jesus ahotan erabili gabekorik. Beti bihotzean zeramanak bezala. Hau ulertu nuenetik, arretaz begiratu dut santu batzuegan, otoitz-giro handikoak ziren haiengan, eta ez zebiltzan beste inolako bidetatik. San Frantziskok hori erakusten digu zaurietan; san Antonio Paduakoak, Haurraren; san Bernardok atsegin hartzen zuen Gizatasunean; santa Katalina Sienakoak... eta beste askok, berorrek nik baino hobeki ezagutuko dituenak.

12.-Askatasunez ibili behar da bide honetan, nor bere burua Jainkoaren eskuetan jarrita. Haren Maiestateak bere gelakide eta sekretuen partaide izatera jaso nahi bagaitu, goazen gogo onez.

14.-Kristo gogora ekartzen den guztian, gogora dezagun nolako maitasunez egin zizkigun hainbat mesede, eta zein handi agertu zaigun berak digun maitasunaren berme hura eman zigunean; maitasunak maitasuna aterako baitu. Eta hasiera-hasieran bada ere eta gu hain kaskarrak bagara ere, saia gaitezen hau beti begien aurrean izaten eta maitatzeko itzartzen, esnatzen; izan ere. behin Jaunak maitasun hau bihotzean sartzen badigu, guztia erraz egingo zaigu eta luzaro gabe eta oso erraz jardungo dugu. (Teresa, Bizitza Liburua, 22. kapitulua, 6,7,12,14 zenbakietatik)